



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015EKO MARTXOAREN 24AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Jesus Peñagarikano Labaka

Oihane Sarasola Nosellas

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko martxoaren 24an udaletxeko bilera-aretoan, eguandiko ordu batak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Jesus Peñagarikano Labaka alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2015KO OTSAILAREN 26KO AKTAREN ONARPENA

2015ko otsailaren 26an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015ko otsailaren 26an eginiko Gobernu Batzarraren akta

BIGARRENA:

2.- 2015EKO MARTXOAREN 4AN BURUTURIKO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEKO AKTAREN INGURUKO ERABAKIAK ONARTU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.1 ETXEZ ETXERAKO LAGUNTZA EMATEKO UDAL-PROGRAMAREN ZERBITZUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA

Etxez etxeko laguntza emateko udal programaren kontratua 2015 maiatzaren 31an bukatzen da 4 urte pasa eta gero. Esleipen berriaren prozesua martxan jarri behar da.

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea etxez etxeko laguntza emateko udal programaren kontratuaren esleipen berria martxan ezartzea. Deialdi publikoa egiteko prozedura martxan jartzea eskatzen da Gizarte Zerbitzuko arduradunari eta Idazkaritzari.

2.2 HEZKIDETZA EGITASMOA, AUZOKO EGITASMOA EUSKALTZALEEN TOPAGUNEAREN ESKUTIK ETA 2015. KO MARTXOAK 8.

Lehen proiektua: Ibarra udalaren Gizarte Zerbitzuak, Ikastolarekin batera, HEZKIDETZA egitasmoaren bigarren zatia bultzatu nahi du aurten ere. Iazko edizioaren balorazio baikorra izan denez, bigarren faseari ekitea pentsatu da. Horretarako, URTXINTXA ESKOLAK, 5.500 €ko aurrekontua aurkeztu du baina egitasmo honetarako ez dago dirulaguntzarik.

Bigarren proiektua: AUZOKO EGITASMOAren lehen zatia burutu da. Txostena eta azken faktura aurkeztu ostean, bigarren zatiari ekingo diogu. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, diru laguntzen deialdia zabaldu du eta Apirilak 15a baino lehen, egitasmoa garatzeko dirulaguntza eskatuko zaio Foru Aldundiari. Egitasmo honek 3.700,10 euroko aurrekontua du eta 2015eko otsailan hasi eta ekainaren 30a bitartean gauzatu da.

Hirugarren proiektua: Martxoak 8 dataren inguruan, bi jarduera antolatuko dira.

- Autodefentsa ikastaroa. 90 €
- “NON GAUDE” antzerki saioa Lakrikun taldearen eskutik 950 €

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea Hezkidetza egitasmoa, Auzoko egitasmoa eta martxoak 8an egingo diren ekitaldiak aurrera eramatea. Guzti hau **PROMOZIOA ETA BERDINTASUNA** partidatik ordaindu beharko da, hau da, 226.231.50.05.2015, eta 500 euro besterik ez daukanez Udaltzaria bidez kreditu aldaketa bat egitea proposatzen da. Partida honek, **MARTXOAK 8ren** inguruan egingo diren ekintzak, **AUZOKO** eta **HEZKIDETZA** egitasmoak eutsi behar ditu.

• AUZOKO EGITASMOAREN AURREKONTUA:	3.700 €
• HEZKIDETZA EGITASMOAREN AURREKONTUA:	5.500 €
• MARTXOAK 8 AURREKONTUA	1.040 €
DENERA:	10.240 €

2.3 LAGUNTZA TEKNIKOAK UZTEKO AKORDIOA PEÑASCAL FUNDAZIOAREKIN

IBARRAKO Udalak eta beste Udal batzuek zenbait zerbitzu eskaintzen dizkietela ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboek, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz.

Zerbitzu horien artean daude “laguntza-produktuak” izenekoak zeinak honela definitzen diren: “ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako tresna, ekipamendu edo sistema oro, ezgaitasun edo/eta mendekotasun hori prebenitu, orekatu, arindu edo ezabatze asmoarekin”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntza-produktuen hornidurarako. Hala ere, ospitaleko altak, ustekabeak eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalek, herritarrengandik hurbil egonik, berehalako erantzuna eman dezakete, eta batzuetan aldi baterakoa, harik eta Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean bertan emanez.

IBARRAKO UDALA eta Tolosaldeako beste udal batzuk zerbitzu hau ematen ari dira modu prekarioan, zenbait pertsonen, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez baliatuta.

Zerbitzu hau hartzen ari den tamaina ikusita, bai Ibarra Udalak bai Tolosaldeko beste udal batzuek uste dute beharrezkoa dela programaren kudeaketa hobetzea gauza hauen bitartez: laguntza-produktuen biltegi bakarra, mantentze egokia, erantzukizun zibileko estaldura...

PEÑASCAL KOOPERATIBAK, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako jarduera, laguntza eman dezake, hurbiltasunez eta kalitateaz, Tolosaldeko herritarrentzako gizarte-baliabideen eskaintzan, eta horrela erantzuna eman diezaike bere lan-jardueraren subjektuek, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dauden kolektiboek daukaten jarduera-nitxoak bilatzeko premiari...

Zerbitzu honen kostua, Tolosaldeako udalerrien artean finantziatuko da errolda kopuruaren arabera. Ibarraren kasuan, 30,19 euro kostua izango du hileko .

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Peñascal koperatibarekin hitzarmena sinatzea, ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboek (pertsone horien autonomia handitzeko asmoz) laguntza teknikoa uzteko. Proiektu hau etxeko- etxeko laguntza partidatik finantziatuko da.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

2.4 KONTSUMOBIDE

Kontsumobideak, Kontsumoko prestakutza-zentroek 2015ean zehar euskal udalerrietan martxan jarriko duen “Kontsumobide zuregandik gertu” prestakuntza eta informazio kanpainaren berri ematen digu.

Ondoren adierazten diren gaiei buruzko prestakuntza-jardunaldiak antolatuko dituzte:

1. erosketak: bermeak eta itzultzeak
2. kontsumoari buruzko oinarritzko argibideak
3. merkataritza elektronikoa
4. etiketek hitz egiten dute
5. etxearen alorrean energia hornidurei buruz jakin behar duzuna

Ikastaro hauek eskatzeko epea: martxoaren 9. Udalerri bakoitzak gehienez bi saio eska ditzake. Ainhoak, KONTSUMO bulegoko arduradunarekin hitz egin ondoren, BIZI-NAHI jubilatuen elkarteari eta herriari orohar eskeintzea proposatzen dute mahaikideek..

Gaiak:

1. etxearen alorrean energia hornidurei buruz jakin behar duzuna (BIZI-NAHI)
2. merkataritza elektronikoa (DEIALDI ZABALA)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Kontsumoko prestakutza-zentroek 2015ean zehar euskal udalerrietan martxan jarriko duen “Kontsumobide zuregandik gertu” inguruan bi saio antolatzea. Ainhoa Orrantia Kontsumobide bulegoaren arduradunarekin hitzartuko da.

2.5 ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK (GIPUZKOAKO ODOL EMAILEAK)

Aurten, honako irabazi asmorik gabeko elkarteak dirulaguntzak eskatu dizkiote Ibarra udalari..

- GIPUZKOAKO ODOL EMAILEAK 300 €

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea Gipuzkoako Odol emaileei 300 euroko diru-laguntza ematea. 430.313.04.00 partida ekonomikotik egingo da ordainketa

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman eskatzaileei eta Kontuhartzaitza sailari.

2.6 O.A.I REN ESKAERA

Famili ugarien eta IBI hobarien inguruan, O.A.I. herritarrak ondorengo eskaera luzatu dio udalari:

“Familia ugariagatiko obaria jaso ahal izateko, gure agiria bidaltzen dizuegu. Jakinen gainean gaude, bi etxe izateagatik, ez ote duzuen obari hau kontutan hartzen. Baina, nik ondorengo eskaera hau egin nahi nuke:

* Kontutan izanik, gauza batek ez duela bestea kentzen, guk familia ugaria izaten jarraitzen dugu, eta zera eskatzen dut: alokairuan dugun etxearekiko obaria ematen ez badiguzue ere, gutxienez bizilekuarena kontutan hartzea.

Ez da gure nahietako bat bi etxe izatea, baina egoerak horretara bihurturik, horrela izatea egokitu zaigu, eta horregatik, nere eskaera kontutan hartzea eskertuko nuke.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Besterik gabe, zuen jarrera baikorra izango delakoan, mila esker”

2015erako indarrean dagoen ordenantza fiskalak, honela dio hitz hitz, **HOBARIAK** kapituluan:

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

- — *Hobaria izateko eskubiderik ez da izango familia unitateko edozein kide, obiko bizilekuaz gain, beste ondasun higiezin baten titular bada. Hobari hau ezartzeko ondorioetarako ez da kontuan hartuko garaje edo trasteleku edota lanbide-jarduera gauzatzen duen lokal baten jabe izatea.*

2015eko martxoaren 4an buruturiko Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Ez onartzea famili ugarien eta IBI hobarien inguruan, O.A.I. herritarrek eginiko eskaera 2015eko Ordenantza fiskalaren baitan.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman eskatzaileei.

HIRUGARRENA:

3.- IBARRAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA

Ikusita, 2014an Oporretan euskaraz izeneko udaleku irekien zerbitzua kontratatzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatua martxan jarri zela.

Ikusita, prozedura negoziatu hori hilabete baterako besterik ez dela.

Ikusita, 2014ko irailaren 15ean egindako Euskara eta Hezkuntza batzordeak kitatuta eman zuela zerbitzua.

Ikusita, aipatu batzorde horretan teknikariari udaleku irekiak esleitzeko prozedura martxan jartzeko eskatu zitzaiola, oraingoan prozedura ireki bidez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusita, Teknikariak aurkeztu dituela pleguak.

Ikusita, aipatu pleguak egokiak direla zerbitzua kontratatzeko.

2015eko otsailaren 23ko Euskara eta Hezkuntza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Ibarra Udaleku Irekien zerbitzua kontratatzeko esleipenaren plegu ekonomiko-administratibo eta teknikoak

BIGARRENA: Lehiaketa deialdia egitea, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidearekin, Ibarra Udaleku Irekien zerbitzua kontratatzeko esleipena martxan ezartzea. Horrekin batera dagokion gastua ere onartzea.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Aldizakari Ofizialean iragarkia jartzea eta kontratazio profileen argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari eta pertsonal saileko administrariari.

I-ERANSKINA

IBARRAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA-
- Prozedura irekia -**

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: EUSKARA SAILA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 92000000-1

**KLAUSULA SOZIALETARA BALDINTZATUTAKO KONTRATUA/CONTRATO SUJETO A
CLAUSULAS SOCIALES : BAI/ SI**

***KONTRATUAREN XEDEA:** Udan antolatzen diren udaleku irekiak antolatu eta kudeatzea (2015. urtean)

CPV Kodea: 92000000-1

***ESLEIPEN PROZEDURA:** Irekia

***LANA EGIKARITZEKO EPEA:** hilabete (2015eko ekainetik-2015eko uztaileira)

***AURREKONTUA:** Kontratuaren gehieneko aurrekontua 25.280 eurokoa da, gehi BEZari dagozkion 6.720 euro (%21), guztira 32.000 euro.

Interesatuak egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Prezio barenan sarturik daude esleipen hartzaileak egin beharreko zuzeneko edo zeharkako gastu guztiak (soldatak, Gizarte Segurantza kotizazioak, administrazio kostuak, langileen dietak, inbentariagarria ez den material oro, esleipenean egiten diren boletin argitarapenetako gastu guztiak...)

***BALIO ESTIMATUA:** 25.280 euro (Gehi %21eko BEZa 6.720 euro).

* **PREZIOEN BERRIKUSPENA:** Luzeera honetako kontratuei ez dagokie

* **BEHIN-BEHINEKO BERMEA:** Ez da eskatzen

* **BEHIN BETIKO BERMEA:**Esleipen prezioaren %5 BEZ gabe 1.264 euro

***ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:** Euskara departamentuan

***PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:**

15 egun natural, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

***ESLEIPEN IRIZPIDEAK:** (100 puntu guztira)

- **Eskaintza ekonomikoa (50 puntu) :** Lizitatzailerek aurkezturiko eskaintzaren proposamen ekonomikoari 50 puntu emango zaizkio gehienez, zerotik hasita %2ko murrizketagatik 2 puntu izango dituztelarik. %21eko jaitziera duen eskaintza anormaltzat edo neurritz gaineratuz hartuko da
- **Beharrezko zerbitzuaren proiektua (gehienez 40 puntu)**
 - Oinarritze teorikoa eta proiektuaren helburuak (gehienez 10 puntu)
 - Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustepenerako Sistemarekiko kokapena
 - Marko teorikoa, helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian erlazionatzea
 - Zerbitzuko hartzaileen adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea
 - Lan metodología (gehienez 20 puntu)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Eskaitza bakoitzeko zuzeneko arretan jarduera arlo bakoitza nola landuko den zehaztea (aisia hezitzaile, parte hartzea adieraztea, sorkuntza, formazioa, orientazioa, bide laguntza)
- Eskaintza bakoitza planifikatzeko, ebaluatzeko, koordinazio maila ezberdinen planteamendu egoki eta zehatz bat azaltzea
- Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea
- Proposamena udalerrriaren errealitatera egokitzea (gehienez 10 puntu)
 - Herriko baliabideak, elkarrekin... ezagutza eta haiekiko elkarlana eta koordinazio proposamena
 - Auzo zein herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak
- **Hobekuntzak (gehinenez 10 puntu)**
 - Aurrez zehaztutakoaz gain esleipendunak, zerbitzuko lana hobetzeko, osatzeko, proposatzen dituen bestelako baliabide, koordinazio, lanketak, etab

***EZIN BESTEKO KLAUSULA SOZIALAK:**

Kontratuak irauten duen bitartean enpresa kontratista behartua dago zerbitzu honetan jarduten duten langileei Gipuzkoako Eskuhartze Sozialari Buruzko hitzarmen kolektiboa (2011ko abuztuaren 1an GAOko 145. alean argitaratua) eta gerora egin den soldaten berrikuspenean ezarritakoa (2013ko otsailaren 22an, GAOko 37. alean argitaratua) aplikatzera. Ezingo du hitzarmenean edo berrikuspenean ezarritako baldintzak gutxitu.

KLAUSULAK

1.a. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.-Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 10.artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio-kontratu izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazioa publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

- 1.- Baldintza ekonomiko-administratiboan plegu hau, plegu teknikoak eta esleipendunak proposamenean ezarritako hobekuntza eta konpromezuak
- 2.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratuak legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, ondorengo arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bateratua onesten duena; azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilea,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duena; eta ondoko hau izango da arauzko xedapena: 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.-Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.-Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

2.a. KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratu honen helburu nagusia 2015. urteko udaran Ibarra herrian antolatzen diren udaleku irekiak antolatu eta kudeatzea, aurrekontuaren, Plegu honetan eta Baldintza Plegua teknikoan ezarritakoaren arabera.

Zerbitzua urte naturalean zehar Ibarra herriko 2 urte eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago.

Gehienez 140 umek parte hartu ahal izango dute udaleku ireki hauetan.

2.- Kontratuaren xedeak lote bakarra du.

3.a. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Plegu honetan aipatzen diren prestazioak burutzeko epea **HILABETEKOA** izango (2015eko ekainak 1etik 2015eko uztailearen 31 bitartean) da. Zerbitzua formalizatuko da kontratua sinatzen den unean.

Kontratuaren luzapenik ez da aurreikusten.

Zerbitzua epe horretan ematen ez bada, kontratistak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ohartarazi ez.

4.a. AURREKONTUA-LIZITAZIO-MOTA

Kontratuaren aurrekontua eta lizitazio-mota 25.280 euro (Gehi %21eko BEZa 6.720 euro) guztira 32.000 euro.

Lizitatuzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Lizitatuzaileek egiten dituzten proposamenetan, ulertuko da ondorio guztietarako sartuta daudela kontrata-prezioak ez ezik (barneraturik geldituko da esleipena egiteko Udalak egin behar dituen argitarapenen kostua ere), kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

5.a. FINANTZAKETA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Plegu honetan aipatzen den kontratu gauzatzea behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Halaber, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6.a. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioaren ordainketa egiteko, aurretik empresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori zerbitzuaren udal teknikari arduradunak gainbegiratu eta egiaztatuko du, hala badagokio, organo eskudunak onartu egingo du. Halaber, fakturak indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki beharko ditu.

Faktura horrekin batera begiraleen kontratuak aurkeztu beharko dira. Behin horiek onartutakoan kopuru osoaren % 75 ordaidunko zaio esleipendunari. Behin zerbitzua amaitutakoan, esleipendunak faktura aurkeztu beharko du gainerako % 25a kobratu ahal izateko. Era berean, lanean diharduten hezitzaile eta begiraleen kotizazioak egoki egin direla ziurtatzeko, eskuragarri daudenean, TC-1 eta TC-2 agirien kopiak ere erantsi beharko dira.

7.a. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

1.- Prezioa kobratzeko eskubidea seigarren klausulan xedatutakoaren arabera izango da.

2.- Kontratatik honako betebeharrak berezi hauek ditu, Plegu honetan eta arau osagarrietan jasotakoak gainera:

a) Kontratuaren xedeko lanak egikaritu ditu, eta pertsonalki egingo ditu, kontratuan ezarritako klausulak eta haren oinarria den proiektua zorrotz betez, eta Udal teknikari eskudunaren aginduetara. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresik gabe.

b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.

c) Esleipen-egintzan zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.

d) Kontratuaren indarraldi osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatuko du, eta behartuta egongo da etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri ematera hamabost eguneko epean.

e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu, besteak beste: Aldizkari Ofizialetan eta prentsan azaldutako iragarkiek sortutakoak, fidantzen eraketakoak, eta, hala dagokionean, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatutakoak.

f) Lan Legeriaren, Gizarte Segurantzaren eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legea (Lan Arriskuak Prebenitzeko Legea) eta lege hori garatzen duten Errege Dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienez), eta, halaber, zerga-alorreko xedapenak ere beteko ditu. Bestalde, Udal Korporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako erantzukizunik hartuko, xedapen horiek ez betetzeagatik etor litezkeen erantzukizunetan.

g) Kontratua egikaritzeko, eta bermealdia bukatzen den arte, antzeman daitezkeen akatsen erantzukizuna izango du.

h) Lanak egiterakoan nahiz bere obligazioak betetzekoan Udalari eta hirugarrenei eragindako kalte guztiak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ordainduko ditu.

i) Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan esaten dena errespetatzea, kontratu honen xede diren lanak burutzearen ondorioz esleipendunak udalaren titularitateko fitxategietan dauden kutsu pertsonaleko datuak lortu beharra izango balu.

Era berean, kontratuaren esleipendunak bermatu beharko du, datuen tratamendua udaleko bulegoetatik kanpo egiten bada, kutsu pertsonaleko datuen tratamendu hori egitea fitxategiaren arduradunak espresuki baimendutakoa izango dela erabiltzaile batentzat edo erabiltzaile-profil batentzat, eta kasu orotan, fitxategi motari dagokion segurtasun maila bermatua izango dela, hori guztia, abenduaren 21ko 1720/2007 Errege Dekretuko 86. artikuluan esaten dena kontuan hartuta, zeinaren bitartez onartzen baita LOPD garatzen duen Arautegia.

8.a. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

1.- Udalari dagokio kontratuaren ikuskapena egitea bere langile teknikoaren bidez. Horiek jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari, betiere lana modu eraginkorrean betetze aldera, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta eta alkateak dituen maila goragoko zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenen kalterik gabe.

2.- Administrazioa behartuta egongo da seigarren klausulan xedatutakoaren arabera ezarritako kopuruak ordaintzera.

9.a. BERMEAK

1.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

2.- Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztzen duen lizitatuak behin betiko bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan, esleipen-prezioaren %5-aren baliokidea, BEZ kenduta.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliaduneko izango da, bermea jartzeko jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermealdia amaitu denean.

3.- Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 96. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguru) eta autzen duena indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoak erabil daitezke. Eskaintzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipaturiko Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

10.a. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Internet bidez ere egingo da publizitatea, Ibarra Udaleko kontratugilearen profilean argitaratuz (www.ibarra.eus). Argitarapenen gastuak, enpresa esleipendunak ordaindu behar ditu kontratua formalizatu eta Udalak gastu horien agiria aurkezten duenean.

11.a. PARTE HARTZEKO AHALMENA, KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoak duten pertsona natural edo juridiko guztiek baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Kaudimen teknikoak edo profesionalak egiaztatzen du(t)en dokumentu edo dokumentuak:

Azken hiru urteetan eskaintako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da; zerrenda honetan zenbatekoa, datak eta jasotzailea, publikoa zein pribatua, baita hauen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira. Ziurtagiri hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 78 a) artikuluan jasotako ezaugarriak izango dituzte.

Azken hiru urteetan 12 urte azpiko umeentzako ludotekaren edo udaleko ireki zein itxien zerbitzu bat antolatu eta eman dutela egiaztatu beharko dute; bestela kaudimena egiaztatu gabe gelditzen dela ulertuko da.

Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztzen duen eskaintzaileak bere kaudimen ekonomikoa finantzieroa eta teknikoa egiaztatu beharko du Plegu honetako 14. klausulan adierazten den moduan.

2.- Enpresari batzuk lizitazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Hori eskritura publikoan formalizatu beharrik ez da izango, harik eta esleipena bere alde egiten den arte. Kasu horretan, enpresariak solidarioki behartuta egongo dira Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarria izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratorzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitzen den arte.

3.- Lizitazioaileek honela aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

- **Epea: 15 egun naturaletako epean**, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

- Bi era hauetako batean:

a) **Leihatilan, Ibarra Udaleko sarreran** (San Bartolome Plaza, 2), lanegunetan 9:00 etatik 14:00 arte.

b) **Posta ziurtatuaren bidez**, honako helbide honetara zuzenduta: **“IBARRAKO UDALETXEA, San Bartolome plaza 2, 20400 IBARRA. Erreferentzia: IBARRAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOA.** Bidaltzaileak egiaztatu egin beharko du bidaltze hori Posta bulegoan egin



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

duen data, eta egun berean, fax bidez (943 67 38 52) edo posta elektronikoaren bidez (aarrue@ibarra.eus) iragarri beharko dio kontratazio-organoari eskaintza bidali duela. Bi baldintza horiek bete ezean, proposamena ez da onarturko, proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Hala ere, zehaztutako egun horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatu ahal izateko, Baldintza Pleguak interesatuen eskura egongo dira www.ibarra.eus webgunean.

Era berean, espediente administratiboa udal bulegoetan aztertu ahal izango da, Euskara sailean, bulego orduetan (9:00 etatik 14:00 arte), eta deialdia jakinarazten den egunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den egunera arte.

4.- Lizitatuzaileek **HIRU GUTUN-AZAL ITXITAN** aurkeztuko dituzte beren proposamenak, izenburu hau jarrita: **“IBARRAKO UDALEKU IREKIEK ZERBITZUA EMATEKO KONTRATAZIOAN”** *parte hartzeko proposamena*. Gutun-azal horiek eskari orokorrarekin batera sartuko dira sarrera-erregistroan, eta lakratuta eta zigilatuta egon daitezke.

LEHENENGO GUTUN-AZALAK “DOKUMENTAZIOA” azpтитulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

- 1.- Bere izenean edo beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean aurkeztu, proposamena auzetzen duen pertsonaren NAN.
- 2.- Ardurapeko aitortpena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatze debekuen kasuren baten barnean ez dagoela eta Administrazioarekin kontratatze lege ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duena (Ibarra Udalaren eredu normalizatuan, II. eranskina)
- 3.- Komunikaziorako helbide elektronikoa bat.

**Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkeztzen badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak aurreko 1. eta 2. ataletan adierazitako dokumentazioa eman beharko du. Behin-behineko bermeari dagokionean, aldi baterako enpresa elkarte partaide bat edo batzuek aurkeztu ahal izango dute, beti ere bermeak partaide guztien izenean era bateratu eta solidario batean erantzuten badu.*

***Elkarte Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, aski izango da gutunazal honetan idazki bat eranstea sinatzen duten enpresarien izenak eta zirkunstantziak adieraziz, bakoitzaren partaidetza zehaztuz eta kontratua indarrean dagoen bitartean Udalaren aurrean guztien ordezkari osoa izango duen pertsona izendatuz.*

****Atzerriko enpresek, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 55. eta 58. artikuluek, eta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

****** Kontratazio Organoa eta esleipenean parte hartzen duten enpresen arteko komunikazioa, A sobrean aurkeztzen den helbide elektronikoaren bidez egingo da. Derrigorrezkoa da helbide hau A sobrean garbi adieraztea**

******* Kontratua esleitzen den unetik aurrera, bi hilabeteko epea izango dute esleipenean parte hartu duten partaidideek (salbu esleipenean garaile izendatzen den den partaidea) aurkeztu duten dokumentazioa eskatu eta berreskuratzeko. Egin ezean, Udalak dokumentazio osoa suntsituko du.**

BIGARREN GUTUN-AZALAK “ESKAINITZA - ESKAINITZA TEKNIKOA” azpтитulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:

- **Beharrezko zerbitzuaren proiektua edo memoria**
- **Hobekuntzak**

Eskaintza baloratzeko irizpideak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak. Horien artean, plegu honetako 13 klausulan ageri direnak eta batez ere memoria teknikoan.

HIRUGARREN GUTUN-AZALAK “ESKAINITZA ESKAINITZA EKONOMIKOA” azpтитulua izango du, eta honako dokumentu hauek sartuko dira bertan:

1. Eskaintza ekonomikoa, plegu honen I. eranskinean jasotako proposamen ekonomiko ereduaren arabera, behar bezala beteta.
2. Lizitatuzaileek eskaintza ekonomikoarekin batera, eskaintzaren desglosea aurkeztu beharko du ondorengo atalen baitan:
 - Giza baliabide kategoria bakoitzeko kostu desglosatua
 - Material kostuak
 - Gastu orokorrak
 - Etekin industrialak (hala badagokio)
 - Dagokion BEZa

Eskaintzaren desglose hau ez da baloratuko, soilik, zerbitzua kontratu honen gastuen jarraipena egitea izango da helburu. Desglose hau kontratuaren exekuzioaren gastuen kontrolerako erabiliko da eta lizitatuzaileka aurkeztutako desglose honi lotuta geratuko dira.

Hirugarren gutun-azaleko dokumentazioari buruzko oharra:

** Ez da onartuko ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomikorik.*

***Prezioen eskaintzaren banakapenean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, guztizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat, eta ofizioz egingo dira oinarritzko prezioa eta BEZ zenbatekoa banakatzeko dagozkion kalkuloak.*

12.a. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- Kontratazio Mahaiaren hasierako osaera nominala eta ondorengo aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira, eta baita Ibarra Udalaren kontratugilearen profilean ere (www.ibarra.eus).

Kontratazio Mahaia honako kideekin osatuko da:

- Lehendakaria: Alkatea edo honek ahal ordetzen duen zinegotzia
- Udal Kontuhartzailea
- Udal Idazkaria
- Euskara eta Hezkuntza Teknikaria

* Kontratazio mahaiak aholkularitza lanak egiteko beste udal teknikari batzu deitzeko aukera izango du. Udal teknikari hauek ez dute boturik izango baina kontratazio mahaiaren parte har dezakete.

2.- Proposamenak ireki aurretik, eskaintzaren lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu Mahaiak.

Lizitatuzaileek aurreko klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko dituzte aurkeztutako dokumentazioaren gutun-azalean, eta ez da onargarria izango dokumentu horiek berak beste lizitazio baterako erabiltzea, nahiz eta beste lizitazio horretako plikak irekitzeko ekitaldia aldi berean egin.

Mahaiak akats materialak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, lizitatuzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak faxez edo posta elektronikoz egingo dira lehentasunez, enpresak lizitazioan aurkeztu duen dokumentazioan aipatutako zenbaki edo helbidera zuzenduta.

3.- Kontratazio Mahaiak Ibarra Udaletxeko bulegoetan irekiko ditu proposamenak (San Bartolome plaza, 2) proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren kontratazio profilean adieraziko da zein egunetan egingo den.

Ekitaldi horretan, onartutzat eman diren kontratu-eskaintzen bigarren gutun-azala bakarrik irekiko da (eskaintza tekniko), ekitaldi publikoan (hau ere kontratazio profilean adieraziko da enpresa interesatuek parte har dezaten).

Hasierako deialdi hau mantentzea nahiz balizko aldaketak argitara emando dira kontratugilaren profilean (www.ibarra.eus), jakinarazteko egoki irizitako beste edozein moduren kalterik gabe.

4.- Bigarren gutun-azalean jasotako atalei dagokien eskaintza baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintzen hirugarren gutun-azala (eskaintza ekonomikoa) irekiko du, hori ere ekitaldi publikoan. Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratugilaren profilean argitaratuko da (www.ibarra.eus), jakinarazteko egoki irizitako beste edozein moduren kalterik gabe.

5.- Azkenik, Mahaiak kontratazio-organoari aurkeztuko dio esleipen-proposamena.

6.- Kontratazio Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izan ditu enpresek aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko edo eskaintzak baloratzeko beharrezko direla irizitako txosten teknikoak eta juridikoak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

13.a. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Honako irizpide hauek kontuan hartuko dira esleipena erabakitzeko:

1.- FORMULA BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (hirugarren sobrea)

1. Eskaintza ekonomikoa 50 : puntuazioa zehaztu eta zein izango den erabiliko del formulazio zehatza

Lizitatuzaileek aurkezturiko eskaintzaren proposamen ekonomikoari 50 puntu emango zaizkio gehienez, zerotik hasita %2ko murrizketagatik 2 puntu izango dituztelarik. %21eko jaitziera duen eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat hartuko da

Lizitatuzaileek eskaintza ekonomikoarekin batera, eskaintzaren desglosea aurkeztu beharko du ondorengo atalen baitan:

- Giza baliabide kategori bakoitzeko kostu desglosatua.
- Gastu orokorrak.
- Etekin industrialak (hala badagokio).
- Dagokion BEZa (hala badagokio).

Eskaintzaren desglose hau ez da baloratuko, soilik zerbitzu kontratu honen gastuen jarraipena egitea izango du helburu. Desglose hau kontratuaren exekuzioaren gastuen kontrolerako erabiliko da eta lizitatuzaileak aurkeztutako desglose honi lotuta geratuko dira.

2.- BESTE IRIZPIDEAK (bigarren gutunazala)

- **Beharrezko zerbitzuaren proiektua (gehienez 40 puntu)**
 - Oinarrizte teorikoa eta proiektuaren helburuak (gehienez 10 puntu)
 - Proiektuaren, Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustepenerako Sistemarekiko kokapena
 - Marko teorikoa, helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian erlazionatzea
 - Zerbitzuko hartzaileen adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea
 - Lan metodología (gehienez 20 puntu)
 - Eskaintza bakoitzeko zuzeneko arretan jarduera arlo bakoitza nola landuko den zehaztea (aisia hezitzaile, parte hartzea adieraztea, sorkuntza, formazioa, orientazioa, bide laguntza)
 - Eskaintza bakoitza planifikatzeko, ebaluatzeko, koordinazio maila ezberdinen planteamendu egoki eta zehatz bat azaltzea
 - Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea
 - Proposamena udalerrriaren errealitateara egokitzea (gehienez 10 puntu)
 - Herriko baliabideak, elkarrekin... ezagutza eta haiekiko elkarlana eta koordinazio proposamena
 - Auzo zein herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak

- **Hobekuntzak (gehinenez 10 puntu)**

Aurrez zehaztutakoaz gain esleipendunak, zerbitzuko lana hobetzeko, osatzeko, proposatzen dituen bestelako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

baliabide, koordinazio, lanketak, etab

14.a. KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA

1.-Administrazioak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamenik onuragarrienari esleitzeko, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposamenaren balio ekonomikoari kasu egin beharrik gabe, edo, bestela, lizitazioa esleitu gabe utz dezake, betiere erabakia esleipen-irizpideen arabera hartuz.

2.- Esleipen-proposamena erabaki ondoren, Kontratazio Mahaiak errekerimendua egingo dio abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

- Zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen duten justifikazio dokumentuak, baldintza hauek aurretik egiaztatuta geratu ez badira.

- Osaera edo aldaketa eskritura, hala behar badu, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza, jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta, hala behar izanez gero.

- Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsonek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)
BEZatik salbuetsita dagoen entitate bat izango balitz, salbuespen bat esleituta duelako, hori frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatzea, honela:

- Erakunde finantzarioen txostena edo, hala dagokionean, arrisku profesionaletarako kalteordain-asegurua egiaztatzea.

- Kaudimen teknikoa egiaztatzea, honela:

Azken hiru urteetan eskainitako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da; zerrenda honetan zenbatekoa, datak eta jasotzailea, publikoa zein pribatua, baita hauen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira. Ziurtagiri hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuaren 78 a) artikuluan jasotako ezaugarriak izango dituzte.

Azken hiru urteetan 12 urte azpiko umeentzako ludotekaren edo udaleko ireki zein itxien zerbitzu bat antolatu eta eman dutela egiaztatu beharko dute; bestela kaudimena egiaztatu gabe gelditzen dela ulertuko da.

Beste edozein dokumentu, kontratazio-organoak eskatuta, kontratatze gaitasuna duela egiaztatze edo kontratua egikaritzeko erabiltzera konprometitutako bitartekoak benetan eskura dauzkala egiaztatze.

-Dagokion behin-betiko bermearen aurkezpena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da lizitatzailerak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera hurrengo lizitatzailerari.

3.- Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.

4.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzailerari jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Ibarra Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko da (www.ibarra.eus).

Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, 156.3 artikuluan arabera zein epean formalizatu behar den adieraziko da.

5.- Kontratuaren esleipena bi hilabeteko epe maximoan egingo da, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, lizitatzailerak eskubidea izango dute beren eskaintza kentzeko.

15.a. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena jaso ondorengo hurrengo hamabost egun baliodun baino geroago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Kontratua formalizatzeko egintza Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan egingo da (San Bartolome plaza 2, 2. solairua), Zerbitzuak hala eskatuta.

Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

Kontratua formalizatu ondoren, GAO-n eta Ibarra Udaleko kontratugilearen profilean (www.ibarra.eus) argitaratuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

16.a. KONTRATUA EGIKARITZEA

Era berean, jarduerarekin hasi baino lehen, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak beteko dituzten langileei dagokienez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela, hori guztia urtarrilaren 30eko 171/2.004 Errege Dekretuan jasotzen dena kontuan hartuz, laneko arriskuen prebentzioari buruzko dekretuan, hain zuzen.

1.-Lanak ezingo dira hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.

2.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko. Kontratista, berari egoztekoak diren arazoak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 212. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

3.-Kontratistak kontratua bere "arrisku eta kontura" onartzen duela ulertuko da, testu bereko 215. artikulua arabera.

17. KONTRATUA GAUZATZEAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomi Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Udalak 2002an onartu zuen Ibarra Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Arauak barneratzen dituen Udal-Ordenantza.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. Artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengo agertzen da:" 18 d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen". Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoka da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18.d) atalean ezarritako neurriak dagozkioen ala ez.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute; izan ere kontratu honen xede taldea Ibarra 2 eta 12 urte bitarteko biztanleak direnez, eta kontuan hartuta Ibarra biztanleen euskara ezagutza %75etik gorakoa dela, Udal honek herritar guztiak bere ama hiztuntzan artatuak izateko eskubidea dutela deritzo.

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntza araudiren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; era berean, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak administrazioaren lan-hizkuntzaren arabera izango dira.

Ibarra Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpoko harremanetan, aipatutako araudiari



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

jarraiki. Halaber, herritarrekin zuzeneko harremana duten zerbitzuak lehenetsuzkoak dira udalarentzat, hizkuntza normalkuntzari dagokionez.

Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Kontratazio gaia den prestazioak zerbitzuaren erabiltzaileekin edo, oro har, jendearekin harremanak dakartzanean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera jokatu da: zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari galdatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira. Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza-gaitasunei dagozkionez.

Ondorioz, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak elebitan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinu-zuko interfazeak barne. Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabekoak izango dira, hau da, euskaraz.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena:

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipen egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazio egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betezen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen euskarria erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen ondorioak:

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontraturako funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, baldintza hau ez bada betetzen kontratua suntsitzeko arrazoi izango da 223.f) artikuluan adierazi bezala.

18.a. ZEHAPENEN ARAUBIDEA

1.- Arau-haustak.

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira kontratistak kontratua gauzatzen duen bitartean egiten dituen arau-haustak.

a) Oso arau-hauste larriak izango dira honako hauek:

-Zehaztutako epean zerbitzua ematen ez hastea, edo zerbitzua emateari uztea, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Udalaren baimen espresurik gabe, zerbitzuak, osorik edo neurri batean, beste bati utzi, alokatu edo eskualdatzea.
- Plegu honetan ezarritako edozein baldintza edo obligazio ez betetzea, gerora hortik erator daitezkeen egintzen kalterik gabe.
- Lanak argi eta garbi gaizki edo modu irregularrean egitea.
- Prestazioaren zaintzaz arduratzen den Zerbitzuko arduradunek emaniko aginduak ez betetzea, lanaren garapenari dagokionez, eta oro har, lan horien prestazioa erregulatzen duten arauak ez betetzea.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau-hauste larriak izango dira:

- Atzerapen ez sistematikoa, lanak egiterakoan.
- Kontrataturiko langileen eskura Udalak jarritako baliabide materialak eta azpiegiturak behar bezala ez erabiltzea.
- Behin eta berriz akats larriak egitea.

c) Arau-hauste arinak izango dira aurreko horietan aurreikusi ez diren gainerako guztiak eta, nolabait ere, Baldintza Plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larriak eragiten ez badute.

2. Zehapenak.

Honako zehapen hauek jarri ahal izango zaizkio kontratistari:

- a) Oso arau-hauste larriengatik: 1.001eurotik 3.000€ra
- b) Arau-hauste larriengatik: 301 eurotik 1.000 €ra
- c) Arau-hauste arinengatik: 300 €bitarte.

Hala eta guztiz ere, *oso arau-hauste larriak* direnean, Udalak erabaki ahal izango du zehapenak jarriko dituen, klausula honetan aurreikusitakoaren arabera, edo kontratua suntsitzeko dagokion espedientea hasiko duen.

3. Eskumena

Zehapen hauek Alkatetza-Lehendakaritzak emaniko Ebazpenaren arabera jarriko dira, arau-hauste arinak eta larriak direnean, eta, oso arau-hauste larriak direnean, organo esleipendunak jarriko ditu, aurrez dagokion espedientea izapidetu ondoren. Kasu horretan kontratistari audientzia emango zaio, eta hala badagokio, abal-emaileari.

4. Ordainketa.

Kontratistak Udal Diruzaintzan ordainduko du zehapenen zenbatekoa, banakako kitapenetik ateratako zorrak borondatezko denboraldian ordaintzeko epeen barruan. Epe hori igaro ondoren isunaren zenbatekoa ordaindu ez badu, kontratua egitean jarritako fidantzatik hartuko da kopuru hori, eta kontratista behatuta geratuko da kendutako kopuru hori hamar eguneko epean berriz jartzera, horretarako eskaera egin zaion egunetik aurrera kontatuta, edo bestela, ordaindu gabe dauden fakturetatik kendu ahal izango da.

5.- Kalteen erreklamazioa:

Zehapenak ezartzeak ez du kentzen Udalari sortutako kalte eta galerengatik ordaindu beharra. Horien



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

erreklamazioa era berean izapidetuko da.

19.a. KONTRATUA BURUTZEA ETA KONTRATISTAREN ERANTZUNKIZUNA KONTRATUA BURUTZERA KOAN

1.- Kontratatistak kontratua sinatu arte ezingo dira lanak hasi.

20.a. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Abenduaren 23ko 22/2013 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, bere laurogeita zortzigarren Xedapen Gehigarrian kontratu publikoen prezio berrikustea galarazten du, indize orokor edo horien formulei dagokienean.

Halere, agindu hau garatzen duen arauaren onarpenetik, bertan aurreikusten diren prezioen berrikuste formulak aplikatuko dira.

21.a. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 219. artikulua araberak, administrazio-kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, I. Liburuko V. Tituluan aurreikusitako moduetan eta kasuetan eta 211. artikuluan araututako prozeduraren arabera. Kasu horietan, kontratatazio-organismoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratatistarentzat.

22.a. KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 223. artikuluan oro har kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege bereko 308. artikuluan bereziki zerbitzu-kontratu etarako jasotakoak.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak kontratatzeke betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeke debeku arrazoiak ez izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu Bateratua ezartzen denaren arabera.

23.a. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

1.- Kontratazio honi dagozkion ebazpen eta izapide-egintzei, azken horiek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interes legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute, aukerako izaeraz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bitartez araututako **administrazioarekiko birjarpenerako errekurtsoa** aplikatuko zaie, edo Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen araututako **administrazioarekiko auzi errekurtsoren** xede izango dira.

2.- Interesatuak gainerako izapide-egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I. ERANSKINA: Proposamen-eredua
ANEXO I: Modelo de proposición

“.....
jaunak/andreak, NAN:,
hiria:....., helbidea:
.....
telefono zk.: (fax zk.:;
posta elektronikoa:), jarduteko gaitasun
juridiko osoaren jabe dela, eta ezaguturik
..... kontratazioa arautuko duen
Baldintza Plegua eta gainerako baldintzak, bere izenean
(edo-r)en izenean,
IFK/NAN, hiria:,
helbidea:....., etab.),
JAKINARAZTEN DU:

I.- Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Plegua eta
espedientean jasota dauden gainerako dokumentuak
ezagutzen ditu eta osorik onartzen ditu.

II.- Esleipendun gertatuz gero, aipatutako lanak
onetsitako Baldintza Pleguan zehazten diren baldintzen
arabera eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako
baldintzen arabera beteko ditu beti.

III.- Lanaren, zergaren eta Gizarte Segurantzaren
alorretan legeek edo araudiek xedatzen dutena beteko du.

IV.- Esandako guztiaren arabera, konpromisioa hartzen du
zehaztutako lan horiek egiteko,euroko
osoko prezioan, honela banakatuta:

- Prezioa: €
- BEZ aplikagarria (%.....): €

"D./Dña.,
con DNI nº, vecino/a de,
domicilio en, teléfono nº
..... (en su caso, fax nº;
correo electrónico:), en plena
posesión de su capacidad jurídica y de obrar, actuando en
nombre propio (o en representación de
....., C.I.F./D.N.I.
nº....., con domicilio en.....,
calle -o plaza,, etc...) enterado/a del Pliego y demás condiciones facultativas
que han de regir la CONTRATACIÓN DE
HACE CONSTAR:

I.- Que conoce el Pliego de Condiciones Económico-
Administrativas y demás documentos obrantes en el
expediente, que expresamente asume y acata en su
totalidad.

II.- Que, en caso de resultar adjudicatario, realizará los
citados trabajos con sujeción en todo caso a los
requisitos y condiciones dispuestos en el Pliego
aprobado, así como al resto de las condiciones
facultativas fijadas en el expediente.

III.- Que se obliga al cumplimiento de lo legislado o
reglamentado en materia laboral, tributaria y de
Seguridad Social.

IV.- Que se compromete, conforme a todo lo dicho, a
ejecutar los trabajos referenciados en la cantidad total de
..... euros, desglosado de la
siguiente manera:

- Precio: €
- IVA aplicable (.....%): €

Lugar, fecha y firma. EL LICITADOR."

Lekua, eguna eta sinadura. LIZITATZAILEA.“



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

II ERANSKINA

AITORPEN EREDUA

.....jn/and, adinez nagusia, NAN.....duena eta.....helbidea duena.

Tel:Fax:.....

Aitortzen du herri Administrazioarekin kontratatzeko ahala duela, jarduteko gaitasuna duela eta SPKLaren Testu Bateginak (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) 60 art.an aurreikusitako inolako ezgaitasun baldintzatzen ez dagoela.

Aitortzen du halaber,

- Zerga eta gizarte segurantzeko betebeharretan egunean dagoela, urriaren 12ko APLEOk (1098/2001 ED) 13 eta 14 art.etan aurreikusitako moduan.

- Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan "Ibarrako udal eraikin, lokal eta instalazioen garbiketa zerbitzuaren kontratazioa"n, aitorten ahu sinatzen dut .

.....2015ekoren.....n.

Sinadura.

IBARRAKO UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA PLEGU TEKNIKOAK

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea, Ibarrako Udalak, bere gazteria politikaren barruan **Udaleku Irekien** zerbitzu publikoaren ustiapenaren baldintza teknikoak arautzea da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- ZERBITZUAREN HARTZAILEAK

2 eta 12 urte bitartean (biak barne) jaiotako ibartar haurrentzat zuzendutako uztailako aisialdi eskaintza da (ikasturtearen arabera datak moldatu daitezkeen) eta izaera desberdineko haur guztien parte hartzea ahalbideratu beharko du.

Zerbitzuen hartzaileek, eskainitako programari eta adierazitako jarraibideen ildotik, zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko eskubidea izango dute.

Jardueren hartzaileen eskura jarritako ekipamendua eta materiala, honen helburuaren arabera, errespetatu eta erabiltzeko betebeharra izango dute.

Bi zerbitzu eskainiko dira:

- 1.- 2-3 urte bitarteko neska-mutilentzat
- 2.- 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat.

3.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

3.1. Helburu orokorra

2 eta 12 urte bitartean (biak barne) jaiotako ibartar haurren udako aisia antolatu, programa osatu eta anitz baten bidez, hauen garapen sorgarria eta artistikoa landu aisi eremu batean.

3.2. Helburu zehatzak:

- 1) Oporraldiez gozaten erraztu.
- 2) Ondo pasatzea eta bizikidetzaz erraztu.
- 3) Ikastetxe ezberdinetako haurren artean harremana sortu.
- 4) Ibarra inguru naturala ezagutu.
- 5) Ibarra ezagupen fisiko, herriko ohiturak eta kultur baliabideak ezagutarazi.
- 6) Aisialdi alternatiboa eskaini.
- 7) Taldekako lana eta partaidetza bultzatu.
- 8) Beste jokabide batzuen artean, eguneroko bizikidetzan lagunartekotasuna eta elkartasuna indartu.
- 9) Norbere taldean eta talde osoan euskara era egokian erabiltzea sustatu (esaerak, esamoldeak...)
- 10) Ondorengo ardatzekin zerikusia duten ohiturak eta konportamendu pautak sustatu: errespetua, elkarbizitza, lankidetzaz, erantzukizuna, autonomia, berdintasuna, solidaritatea, aniztasunaren baloreak indartu, tolerantzia, baterako hezkuntza eta aniztasunarekiko errespetua
- 11) Elkar harremanetarako espazioak eskaini talde naturaletan lan eginaz, haurren integrazioa laguntzen duten aspektuak bultzatuz
- 12) Neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatu.
- 13) Ezintasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten haurrak ludotekan integratu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.- ZERBITZUAREN KUDEAKETA

Kudeaketa lana, 3. atalean azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du hartzaileak, beti ere Ibarako Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan.

Beharra sortzen den bakoitzean udaleku irekietako begiraleek programaketa, proiektuak e.a. aurkeztuko dituzte Euskara eta Hezkuntza arloan.

Udal instalazioetan eta herrian zehar eskainiko da zerbitzua.

Ibarako Udalaren betebeharrak:

- 1) Udalekuak hasi aurretik, ikastetxe eta kiroldegiko arduradunekin udalekuentzako instalazioen erabilera adostea
- 2) Faktura ezarritako epeen barruan ordaintzea
- 3) Lanen zuzendaritza eta kontrola eramatea, Euskara eta Hezkuntza arloaren bitartez
- 4) Ikastetxe eta kiroldegiko arduradunekin udalekuentzako instalazioen erabilera adostea.
- 5) Jarduera aurrera eramateko bi lokal uztea: bata, 2-3 urtekoentzat erabiliko dena (Emeterio Arrese kalean dagoena), eta bestea, 3-12 urte bitartekoekin erabiliko dutena (Azkue kalean dagoena).

Esleipendunaren betebeharrak:

Jarduerari buruz:

- 1) Udaleku irekien programa eta antolaketa guztia egin eta proiektuaren eskaintzaren dinamizazioaz arduratuko dira (begirale nahiz haurren izen emate kanpainatik hasita, azken memoria entregatu arteko prozesu guztiaz). Antzemandako beharrei erantzuteko egingo diren programak diseinatu eta gauzatu
- 2) Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren administrazio betebeharrak egitea
- 3) Zerbitzua bi adin tarteetan arabera antolatzea.

Ebaluazioari buruz:

- 1) Udaleku irekien amaieran, jardueraren memoria egitea (besteak beste, izandako garapena, funtzionamendua, datu estatistikoak, jarraipen fitxak eta ebaluazioa barne).

Kudeaketa eta Euskara eta Hezkuntza arloarekin koordinazioari buruz:

- 1) Udalekuetan parte hartzeko eskaerez eta ordainketen kudeaketaz arduratzea.
- 2) Udal teknikari arduradunari erabiltzaileen eskaera eta iradokizunak adierazi.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 3) Udaleku irekien programa Euskara eta Hezkuntza arloan entregatzea eta honekin batera, udalekuetan parte hartuko duten begiraleen behin betiko zerrenda ere (izen-deiturak, nortasun agiri fotokopia, eskatzen den bakoitzaren titulazioaren ziurtagiria eta Europako Erreferentzia markoaren C1 gaitasun mailaren ziurtagiria).
- 4) Programazio horretan aurreikusita ez dagoen edozein ekintza egin ahal izateko nahitaezkoa izango da Udal baimena (Euskara eta Hezkuntza arloa). Ekintza berria aztertu ahal izateko beharrezkoa den denborarekin aurkeztuko da.
- 5) Euskara eta Hezkuntza arloak udaleku irekien kuotak finkatu eta onartuko ditu. Esleipenduna kuotak jasotzeaz arduratuko da eta behin ordainketak egin ondoren Udalari helaraziko dizkio, izen-ematea amaitu eta 10 eguneko epean. Diru-sarrerarekin batera, izen emandakoen izen-abizenak biltzen dituen ze4errrenda bat ere aurkeztu beharko du Udalean.
- 6) Zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoak diren administrazio betebeharrak egitea.
- 7) Baldintza Ekonomiko-Administratiboan eta Teknikoen Pleguetan ezarritakoaren arabera bete behar da kontratua.
- 8) Adjudikazio honen xede den jarduera burutzeko Udalak emandako aginduak bete egin behar dira, eta oso bereziki Udaleko Euskara eta Hezkuntza arloak emandakoak.
- 9) Aktibitatearen baitan hurrek jasan lezaketan edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egin ahal izateko, esleipendunak udaleku irekien jarduera guztia estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzailearen batekin.
- 10) Jardueratik eratorritako gastuak hartzailearen kontura izango dira (erantzukizun zibileko aseguruak, lokalaren mantentzeak, argia, ura, telefonoa, Internet, tasak...).
- 11) Zerbitzu honek erabilitako eta argitaratutako agiri guztietan Ibarra Udaleko armarrria agertuko da honako testuarekin: "Ibarra udalaren zerbitzua."

5.- ZERBITZUEN INTENTSITATEA

Haurrentzako, ekaina bukaeratik uztaila bukaerara, astelehenetik ostiralera, jai egunak ezik eta 9:00etatik 13:00etara izango da. Dena den, ordutegi hauek, zerbitzuaren eskaera eta beharren arabera aldaketak izan ditzakete ibarra Udaleko Euskara eta Hezkuntza arloak edo esleipendunak hala eskatuz gero.

6.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

1. Instalazioak eta ekipamenduak

1. 2-3 urtekoentzat



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Instalazio nagusia Emeterio Arresen dagoen lokala izango da. Bertan, egingo dituzte jarduera neska-mutilek. Horrek ez du esan nahi ezingo dutenik bertatik atera eta herriko hainbat gunetan ibili. Lokala guztiz prestatuta dago.

2. 3-16 urte bitartekoak

Herrian zehar eta herriko instalazio ezberdinetan izango dira udalekuak eta hauen erabilera, udalak aurrez ikastetxeekin eta udal instalazioen arduradunekin adostuko du.

Erabilitako instalazioak eta oinarrizko ekipamendua egoera onean mantenu beharko dira eta ondo zaintzeko bitartekoak erabili. Kalterik gertatzen bada, esleipendunaren kontura izango dira kostuak.

Udalekuetan, beharko den material eta ekintzetarako gastuak esleipendunaren kontura izango dira: mahai jolasak, jostailuak, jokoak, tailerretan erabiltzeko materiala, sarrerak, jarduera bereziak, etab.

Udalekuetan zehar beharko balitz autobus garraiorik, hau ere esleipendunak bideratu beharko du, kostua bere gain hartuz.

2. Giza baliabideak

Udalekuetan parte hartuko duten begirale kopuruari dagokionez, guztira 14 begirale arituko dira gehienez ere lanean, 10 umeko begirale bat egon beharko duelarik.

Esleipenduna behartuta dago Lan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun, higiene eta arriskuen prebentzioaren arloan indarren dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Begirale lanetan arituko direnen ordutegia, goizeko 8:30etatik 13:30etara izango da

Begirale guztiak gutxienez **aisialdiko titulazioa** izan beharko dute eta Gizarte eta hezkuntza arloko erdi edo goi mailako tituluduna izatea ere baloratuko da, bereziki 2-3 urte bitarteko neska-mutileen begiraleen kasuan. Honez gain, aisialdian edota haurtzaroan zein gazteriaren alorretan prestakuntza espezifikoa izan beharko dute, edo aipatu alorretan lan eskarmentu kreditatua.

Udaleku irekien **langileen aukeraketa prozesuak deialdi publiko bitartez egingo da**, udalarekin batera zehaztutako epean, eta irizpide objektiboak erabili beharko direlarik.

Lanean diharduten begirale eta zaintzaileen **nominen** kopia sinatua, eta **TC-1 eta TC-2**-aren kopia entregatu beharko da Euskara eta Hezkuntza arloan. Jardueran zehar langile aldaketarik egonez gero, langile berriaren kurrikuluma eta tituluaren fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira eta Euskara eta Hezkuntza arloaren oniritzia jaso beharko du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratuak irauten duen bitartean, aldaketaren bat baldin badago, erretiroa dela, heriotza dela, borondatezko baja dela enpresan, kaleratzea dela, elbarritasun iraunkorra dela... edo zerbitzuaren beharregatik aldaketaren bat ematen den guztietan, esleipendunak Udalaren alde aurretiko baimena beharko du. Langileen aukeraketa prozesuak deialdi publiko bitartez egingo dira, irizpide objektiboak erabili beharko dira eta Udalaren gainbegiratua edukiko dute.

7.- INBENTARIOA

Esleipendunak, hasierako inbentarioa egingo du eta hau, kontratua irauten duen bitartean eguneratua eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio edozein desagertze eta hondatze gertatuz gero.

Hasieran dauden ondare guztiak eta esleipendunak instalakuntzei gehitu diezazkiokeenak Ibarra Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, beti ere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

8.- HIZKUNTZ IRIZPIDEAK

Zerbitzu guztiak euskaraz eskainiko dira.

1. Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute umeekin eta gurasoekin harremana izango duten monitoreek. Administrazio lanak egiten dituzten langileek, aldiz, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute ahozkoan gutxienez.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeke honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

2. Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

3. Erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan...) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz egingo dira. Herritarrak eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

4. Erabilera administrazioarekin

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabekoak izango dira, hau da, euskaraz.

9.- KONTRATUA BERRAZTERTU ETA ALDATZEA

Esleitu den zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu Udalak, jendearen intereseko arrazoiak daudenean.

Kontratua aldatzeko proposamenak egin ahal izango ditu esleipendunak, zerbitzua hobetzeko edo handitzeko, edo zerbitzuaren kostua murrizteko, udalaren aldetik proposamenak aztertu eta agian onartzekotan.

10.- ZERBITZUAREN KONTROL ETA JARRAIPENA

Euskara eta Hezkuntza arloak behar bezalako jarraipena egin ahal izateko zerbitzuaren erabiltzaileentzat proposatutako helburuak bete diren neurtzeko langileekin eta behar izanez gero esleipendun enpresarekin bilerak egin ahal izango ditu.

Era berean, Euskara eta Hezkuntza arloak ondorengo eskumenak izango ditu:

- Zerbitzuaren kudeaketa zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu: bere kalitatea ebaluatu
- Udalekuen funtzionamendua, aldaketak, lokalaren irekierak eta itxierak arautu eta bestelakoak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Zerbitzuaren esleipendunek proposatutako dinamizazio ekintzetarako programazioa ikertu eta gainbegiratu eta izaera tekniko, inguruabar edo jendearen interesekoa delako balizko aldaketaz proposatu.

Zerbitzu hauekin harreman zuzena duten ekintzak gainbegiratzeko ahalmena izango du Euskara eta Hezkuntza arloan arduradunak, esleipendunak bere betebeharrak betetzen dituen ikusteko. Era berean, kontratuaren baldintza teknikoak eta zerbitzuaren gainontzeko inguruabarrak (ordutegiak,...) betetzen diren ere ikustatu ahal izango ditu.

LAUGARRENA:

4.-EUSKAL HERRIA 32-38 BITARTEKO ESPALLOIA ZABALTZEKO OBRAREN ESLEIPENA

Euskal Herria 32 eta 38 artean dagoen espaloia oso estua da, 1,20 zm-ko zabalera du Montes etxearen inguruan; errepideak, berriz, zabalera handia dauka, eta ikusi dugu errepideari zati bat kenduta, espaloia zabaltzeko daitekeela oinezkoen mesede handia eginez. Bestalde, Euskal Herria 46an, Ibaigain alderako kurba ere oso estua da eta zabaltzeko aukera ematen du.

Diputazioak errepidea estutzeko baimena eman du eta honetaz gain Gipuzkoako Urak edateko uraren hodia (fibrozementuzkoa aldatu eta fundiziozkoa jarri) aldatzeko nahia agertu du.

Bi lan hauek elkartuta dauden arren (bata bestearen jarraipena den ehinean) obrak banaka kudeatuko dira eta Administrazio bakoitzak dagokion zatia ordainduko du.

Espaloia zabaltzeko lan horiek egiteko hiru enpresei aurrekontua eskatu zaie honako eskaintzak aurkeztu direlarik (%21eko BEZa barne dute):

OBRA	LIZITAZIO AURREKONTUA	EXCAVACIONES UNDIARTE S.L.	OTEGI GAZTAÑAGA ERAIKUNTZAK S.L.	MULARRI ERAIKUNTZAK S.L.
UDALA	59.762,20 €	59.607,46 €	54.329,58 €	54.001,33 €

1 0000.601.153.20.04 2015 partidatik finantzatu da obra.

Obra eta Zerbitzuetako teknikariak, Udalarari dagozkion espaloia zabaltzeko lan hauek **MULARRI ERAIKUNTZAK ETA ASFALTOAK S.L.** enpresari esleitzea proposatzen du, **54.001,33 €**tan, eskaintza merkeena dela kontutan izanik.

Espediente guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzarrak aho-batez harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA: Onartzea eta baimentzea Euskal Herria 32-38 bitarteko espaloia zabaltzeko obra egitea

BIGARRENA: Obra MULARRI ERAIKUNTZAK ETA ASFALTOAK S.L enpresari esleitzea 54.001,33 eurotan (%21eko BEZa barne)

HIRUGARRENA: Obraren gastua onartzea eta 1 0000.601.153.20.04 2015 partida lotzea obra hau finantziatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea MULARRI ERAIKUNTZA ETA ASFALTOAK S.L enpresari, Otegi Gaztañaga Eraikuntzak S.L enpresari, Excavaciones Undiarte S.L enpresari eta Kontuhartzailatza sailari.

BOSGARRENA:

5.-PISU HUTSETAN %50EKO ERREKARGUAREN SALBUESPENEN ONARPENA

2015 urteko Ibarra Ordenantza fiskalaren baitan ondasun higiezinaren gain (pisu hutsetan) % 50eko errekararen salbuespena onartuko da baldin eta Ordenantzaren 9.en artikuluko egoeraren bat aurrikusten bada.

Zergabilketa sailak aurkeztu diren alegazioak aztertu ditu. Honako pertsona hauen alegazioak Ordenantzaren baitan % 50eko errekararen salbuespena aplikatu beharko litzaieke:

pisu	mano	num. fijo	calle fiscal	portal	pisu	mano	c.postal	herria	nan/dni	alegazioa	arrazoia	salbuet. noiz arte
2	dr	45110b	kondeaneko aldapa	14	2	iz	20400	tolosa	15180235m	23/01/2015	iurreamendin	bizi den arte
3	dr	45125t	j. gayarre	3	3	dr	20400	ibarra	15217906w	18/02/2015	herent (2014)	2016
1	b	5183340w	arantzazuko ama	4	1	b	20400	ibarra	22101999b	29/01/2015	alokair (urte 1)	2015
2	b	3150903b	e. herria	17	2	b	20400	ibarra	15181646j	22/01/2015	herent (2014)	2016
4	a	5140556g	zaldune	14	2	c	20400	ibarra	72457775r	02/02/2015	herent (2014)	2016
0		5141929x	izaskunburu	19	0		20400	ibarra	15998931q	23/02/2015	etxe bakarra	2015,2016
4	d	3180707s	san ignacio	11	4	d	20400	ibarra	15866693m	22/01/2015	herent (2013)	2015
1	iz	5022219k	egialde	17	1	iz	20400	ibarra	72430960g	19/01/2015	alozariak	2015
1		45055x	egialde	5	1		20400	ibarra	15918114k	27/01/2015	herent (2013)	2015
1	b	5032742f	e. herria	16	1	b	20400	ibarra	15967114p	23/01/2015	alokair (urte 1)	2015
2	c	4024481j	atseden kalea	2	1	dr	20493	berrobi	15994139p	04/02/2015	herent (2013)	2015
1	iz	45145 v	beko kale	15	3	dr	20249	itsasondo	44168375a	26/01/2015	herent (2014)	2016



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1	c	3180537f	san ignacio	2	1	c	20400	ibarra	44168605a	28/01/2015	herent (2013)	2015
1		44391j	uzturre	2	3	d	20400	ibarra	06964299z	27/02/2015	taberna (iae)	udalak baim.arte
1	dr	5096343k	egialde	6	1	dr	20400	ibarra	72414432j	28/01/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte
1	iz	5096344s	egialde	6	1	iz	20400	ibarra	72414432j	28/01/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte
2		44392r	j. guridi (eskuxar bas.)	2			20400	ibarra	72424247f	02/02/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte

Bestalde beste bi eskaera ere aztertu dira; B-20633475 zenbakidun enpresa eta 15.983.579-M NAN zenbakidun jaun/andreak aurkezturiko eskaera.

Guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea % 50eko errekaruaren salbuespena aplikatzea honako kasu hauetan:

A) 2015eko Ibarako Ordenantza fiskalaren 9.b artikularen baitan :

1	b	5183340w	arantzazuko ama	4	1	b	20400	ibarra	22101999b	29/01/2015	alokair (urte 1)	2015
1	b	5032742f	e. herria	16	1	b	20400	ibarra	15967114p	23/01/2015	alokair (urte 1)	2015

B) 2015eko Ibarako Ordenantza fiskalaren 9.c artikularen baitan:

2	dr	45110b	kondeaneko aldapa	14	2	iz	20400	tolosa	15180235m	23/01/2015	iurreamendin	bizi den arte
---	----	--------	-------------------	----	---	----	-------	--------	-----------	------------	--------------	---------------

C) 2015eko Ibarako Ordenantza fiskalaren 9.d artikularen baitan:

1	dr	5096343k	egialde	6	1	dr	20400	ibarra	72414432j	28/01/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte
1	iz	5096344s	egialde	6	1	iz	20400	ibarra	72414432j	28/01/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte
2		44392r	j. guridi (eskuxar bas.)	2			20400	ibarra	72424247f	02/02/2015	biziq.baldint.	udalak baim.arte

D) 2015eko Ibarako Ordenantza fiskalaren 9.g artikularen baitan:

3	dr	45125t	j. gayarre	3	3	dr	20400	ibarra	15217906w	18/02/2015	herent (2014)	2016
2	b	3150903b	e. herria	17	2	b	20400	ibarra	15181646j	22/01/2015	herent (2014)	2016
4	a	5140556g	zaldune	14	2	c	20400	ibarra	72457775r	02/02/2015	herent (2014)	2016
4	d	3180707s	san ignacio	11	4	d	20400	ibarra	15866693m	22/01/2015	herent	2015



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

											(2013)	
1		45055x	egialde	5	1		20400	ibarra	15918114k	27/01/2015	herent (2013)	2015
2	c	4024481j	atseden kalea	2	1	dr	20493	berrobi	15994139p	04/02/2015	herent (2013)	2015
1	iz	45145 v	beko kale	15	3	dr	20249	itsasondo	44168375a	26/01/2015	herent (2014)	2016
1	c	3180537f	san ignacio	2	1	c	20400	ibarra	44168605a	28/01/2015	herent (2013)	2015

F) 2015eko Ibarra Ordenantza fiskalaren 9.e artikuluren baitan:

1		44391j	uzturre	2	3	d	20400	ibarra	06964299z	27/02/2015	taberna (iae)	udalak baim.arte
---	--	--------	---------	---	---	---	-------	--------	-----------	------------	---------------	------------------

G) 2015eko Ibarra Ordenantza fiskalaren 9.h artikuluren baitan:

0		5141929x	izaskunburu	19	0		20400	ibarra	15998931q	23/02/2015	etxe bakarra	2015,2016
---	--	----------	-------------	----	---	--	-------	--------	-----------	------------	--------------	-----------

Etxebizitza berezia da: nahiz eta bi eskritura egon (non bi etxebizitza bateratu daudela agertzen den) udal efektuetarako 3.en etxebizitza bat ere aurrikusten da. Ondorioz 3 errezibu ordaintzen ditu. Udalak ikuskaritza egin du eta ikusi du 3 solairu horiek etxe bakarra osatzen dutela eta jabe bakarra dutela (erabilera solairu denetan dagoelarik). Ondorioz ontzat ematen da %50eko salbuespena egitea errekargu honetan.

1	iz	5022219k	egialde	17	1	iz	20400	ibarra	72430960q	19/01/2015	altzariak	2015
---	----	----------	---------	----	---	----	-------	--------	-----------	------------	-----------	------

Etxe altzarien aldaketa dela eta (egotzi ezin zaizkien egoera izan zutela kontutan izanik) ezin izan zuten lehenago etxe bizitza egokitu baina ziurtaturik dago 2015eko urtarrilaren 20an bizitzen jarri zirela eta egoki errolatu zirela.

BIGARRENA: Ez onartzea 15.983.579-M NAN zenbakidun jaun/andreak aurkezturiko alegazioa honako arrazoiaren baitan:

- 2014.en urtean %50eko errekargua kobratu zitzaizen eta beraien alegazioen arabera (alegazioa 2015eko urtarrilaren 28an sarrera ematen diote 160 erregistro zenbakiarekin); etxebizitza 2013ko abuztutik hutsik zegoen (jabearen heriotzaren ondorioz).
- Udalari ez zitzaion inolako alegaziorik aurkeztu (prozedurak ezartzen duen legezko epean) honako egoera hau agertuz. Udalak ez du salbuespenik aplikatzen ofizioz (egoeraren frogak aurkeztu behar baitira) eta interesatuari dagokio egoera honen berri ematea eta egoera hori agertzen duen egiaztapenaren aurkezpena egitea Administrazioan dagokion epe barruan. Ondorioz 2015eko urtarrilak 28an egiten den eskaerak ezin du atzeraeginkortasunik sortu (ez baita behar den prozedura aplikatu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

egintza administratiboa gelditu arazteko) egintza administratiboa 2014 urtean agortu denean.

HIRUGARRENA: Ez onartzea B-20633475 zenbaki fiskala duen enpresaren eskaera honako arrazoien arabera:

- Uztailak 5eko 12/1989 Foru Arauaren 5.en artikuluan zerga hau aplikatuko zaien sujetu pasiboan kontzeptuan barneratzen da 2015eko urtarrilaren 29an 173 erregistro zenbakiarekin alegazioa jartzen duen enpresa. Alegia: *gozamen edo azalerako ondasun eskubiderik ez duten kargapeko ondasun higiezin batzuen jabe da.*
- Uztailak 5eko 12/1989 Foru Arauaren baitan eta ondoren 4/2012 Foru Arauak egiten duen garapenaren baitan honakoa adierazten da: *ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjetu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean-hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez- udalek 100eko 150erainoko errekarua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen sujetu pasiboari exijituko zio, haren sortzapen zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.*
- Legeak argi adierazten du etxebizitza erabilera duten kasuan aplikatuko da errekarua hau (kasu honetan, etxebizitza erabilera dute etxe horiek eta ez da bestelako jarduerarik aurrikusten) eta ohiko egoitza ez dela ziurtatzeko bi modu aurrikusten ditu soilik: hirugarren bati errentatuz edo hirugarren bati lagapen bidez egokituz (egoera hauek frogatu behar direlarik). Eskatzaileak ez du egoera hauetan dagoela frogatzen duen dokumenturik aurkeztu.
- Bestalde, 2015 urteko Ibarra Udal Ordenantzak errekarua honetan %50 egiteko salbuespenak aurrikusten ditu bere 9.en artikuluan eta hemen adierazten den egoera ez da bertan aurrikusten.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari dagokien salbuespena aplikatu dezan onartu diren kasu hauetan

BOSGARRENA: Erabaki honen berri eman alegazioa jarri duten denei.

SEIGARRENA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

6.-KUNETA GARBITZEKO ZERBITZUAN, BELAMENDIK (TOLOMENDI) AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONARPENA

2014ko irailaren 17an Tolomendik eskualdeko udalei jakinarazi zien, enplegua sustatzeko helburuarekin, Lanbidetik baserri bideetako kunetak garbitzeko hiru langileen kontrataziorako %75eko diru laguntza jaso zuela.

Hiru langile horien kontratazioa Belarmenditik egingo zen, guztira 6 hilabeterako egun osoko lan jardunarekin.

Ibarrako Udala herri bideetan kunetak garbitzearekin interesaturik agertu zen, eta hala jakinarazi zion Tolomendiri 2014ko irailaren 18an.

Ibarrako Udalak honoko lanak aurreikusi zituen: Argindegitik Izaskunera doan bide bazterrak garbitzea, Molpoido bideko kunetak garbitzea, Belabietako pistan kunetak garbitzea,... guztira 8 eguneko lana hiru lagunentzat.

Hau guztia kontuan hartuta, eta eskualdeko udalen artean egutegiak finkatu ondoren, aipaturiko hiru langileak 2015eko urtarrilaren 22tik otsailaren 2ra aritu ziren lanean Ibarra, 7.00etatik eta 14.30etara; udal brigadako buruak Udaleko makinaria utzi eta egin beharreko lanak zehaztu ostean.

Lan guztiak ongi burutu ondoren, Belarmendiren faktura A/4182 iritsi da 2015eko otsailean, guztira 581,47 euroko zenbatekoagatik (BEZ barne).

Kontuan hartuta Ibarrako Udalak 2015eko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.210.170.00.00 partidatik finantziatu dezakeela zenbateko hori, Ingurumen departamentuak faktura hori zuzena dela eta kontuhartzaitzak aipaturiko partidatik ordaintzea ondorioztatzen du.

Hau guztia aztertu ondoren, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Belarmendiren A/4182 faktura guztira 581,47 euroko zenbatekoagatik (BEZ barne).

BIGARRENGOA: Faktura honen ordainketa agintzea, printzipioz 2015eko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.210.170.00.00 partidatik ordainduko da



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza sailari

ZAZPIGARRENA:

7.- GALDERA ETA ESKAERAK

7.1 TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO EKARPENAREN ONARPENA

2015eko martxoaren 10eko datarekin, Tolosaldea Garatzenek 2014ko abenduak 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2015 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpenaren kopurua aurkezten du.

Ekarpena 29.096,00 eurotakoa da (urte osoan) eta bi zatitan egitea proposatzen da: lehen ordainketa 2015eko martxoaren 30ean egingo da (14.548 eurotakoa) eta bigarren ordainketa aldiz 2015eko irailaren 30ean egingo da (14.548 eurotakoa).

Guztia ikusita, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea 2015eko martxoaren 10eko datarekin, Tolosaldea Garatzenek 2014ko abenduak 15eko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2015 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpenaren, hau da, 29.096,00 eurotakoa.

BIGARRENA: Onartzea 29.096,00 euroren ordainketa bi zatitan egitea: lehen ordainketa 2015eko martxoaren 30ean egingo da (14.548 eurotakoa) eta bigarren ordainketa aldiz 2015eko irailaren 30ean egingo da (14.548 eurotakoa).

HIRUGARRENA: Agintzea 2015eko martxoaren 30ean, 14.548 eurotakoa ordainketa egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza sailari eta Tolosaldea Garatzeni.

7.2 PAZKO ASTEAN EGINGO DIREN EKITALDIEN ETA HAUEK AURRERA ERAMATEKO BEHAR DEN AURREKONTUAREN ONARPENA

Kultura teknikari 2015 urteko pazko astean egingo diren ekitaldiak aurkezten ditu. Honekin batera ekitaldiak egin ahal izateko aurrakusten den aurrekontua ere aurkezten dio Gobernu Batzordeari, honek onar dezan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

PAZKO ASTEA 2015

Apirilak 7, asteartea: "Kortxea doktorearen abenturak" antzezlan *Kiliklon taldearen* eskutik. 17:00etan, kultur etxean. Adina: 10 urterainoko haurrak

Apirilak 8, asteazkena: "Hiru, bi, zast... egizu jolas!" emanaldia *Lankuren* eskutik. 17:00etan, kultur etxean. Adina: 2-12 urte.

Apirilak 9, osteguna: "Madiber" magoaren emanaldia. 17:00etan, kultur etxean.

Apirilak 10, ostirala: "Irriparra barra barra" Kiki eta Koko pailazoaren emanaldia. 17:00etan, kultur etxean.

GASTUAREN AURREIKUSPENA:

KONTZEPTUA	KOPURUA
Kortxea doktorearen abenturak emanaldia	1.331,00 €
Madiber magoaren emanaldia	715,00 €
3, 2, zast, egizu jolas! Emanaldia	880,00 €
Kiki eta Koko pailazoaren emanaldia	992,20 €
Egile eskubideak	300,00 €
GUZTIRA	4.218,20 €

Guztia ikusita, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2015 urteko Pazko asterako aurkezten den emanaldi eta ekitaldiak egitea eta hauek aurrera eramateko aurkezten den 4.218,20 eurotako gastua.

7.3 2014 URTEAN EMANDAKO KIROL DIRU-LAGUNTZEN ZURIKETEN ONARPENA

2014ko abenduak 16an buruturiko Gobernu Batzordearen erabaki bidez honako diru-laguntzak eman ziren honako kirol elkarteei:

URTEKO AKTIBITATEETAKO DIRULAGUNTZAK:

1. LAU-BURU K.E: 17.200 EURO
2. SOKA-TIRA: 8.000 EURO
3. SENDI EKINTZA: 3.000 EURO



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4. BELABIETA K.E: 3.500 EURO

AKTIBITATE BEREZIAK

1. LOKATZETA: 2.600 EURO
2. SOKA-TIRA: 900 EURO
3. UZTURPE IKASTOLA: 3.900 EURO

2014ko abenduaren 16an Tokiko Gobernu Batzordeak ordainketa batzuk egitea onartu zuen eta honako hauek izan ziren:

1. LAUBURU K.E: 17.200 eurotatik
 - a. 3.000 euro aurreratu zitzaizkien (2014ko urriaren 16an)
 - b. Ondoren, diru-laguntzaren %60, 8.520 euro ordaindu zitzaizkien (2014ko abenduaren 29an)
 - c. 5.680 euro falta dira ordaintzeke (diru-laguntzaren %40)
2. SOKATIRA:
 - a. 8.000 euroetatik %60 ordaindu zitzaien (4.800 euro alegia) 2014ko abenduaren 29an
 - b. 3.200 euro falta dira ordaintzeke (diru-laguntzaren %40)
3. SENDI EKINTZA
 - a. 3.000 euroetatik %60 ordaindu zitzaien (1.800 euro alegia) 2014ko abenduaren 29an
 - b. 1.200 euro falta dira ordaintzeke (diru-laguntzaren %40)
4. BELABIETA KIROL ELKARTEA
 - a. 3.500 euroetatik %60 ordaindu zitzaien (2.100 euro alegia) 2014ko abenduaren 29an
 - b. 1.400 euro falta dira ordaintzeke (diru-laguntzaren %40)
5. LOKATZETA K.T
 - a. 2.600 euro ordaindu zitzaien 2014ko abenduaren 29an
6. SOKATIRA
 - a. 900 euro ordaindu zitzaien 2014ko abenduaren 29an
7. UZTURPE IKASTOLA
 - a. 3.900 euro ordaindu zitzaien 2014ko abenduaren 29an

Mikel Agirrezabala Bildu Koalizioko zinegotziak (kirol zinegotzia) Kirol teknikaria ez dagoenez, kirol elkarte hauen dirulaguntzen zuriketaren kontrola beregain hartu eta dokumentazioa egoki dagoela aipatzen du.

Guztia aztertu ondoren, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENENGOA: Onartzea Kirol elkarte denek egin dituzten zuriketak eta ontzat ematea

BIGARRENGOA: Diru-laguntzen bigarren zatiaren ordainketa agintzea. Honako kopuru hauek ordainduko dira:

- LAUBURU KIROL ELKARTEARI: 5.680 EURO
- SOKATIRA: 3.200 EURO
- SENDI EKINTZA: 1.200 EURO
- BELABIETA KIROL ELKARTEA: 1.400 EURO

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza sailari

7.4 ANTZIBARREK EUSKALERRIA 18-2KO PREZIO ITUNDUTAKO ETXEBIZITZA LIBRE EZBERDINAK ELKARTZEKO KONTSULTA.

Antzibar enpresak udalari kontsultatu nahi dio Euskalerria 18-1eko eraikinean dauden prezio itundutako bi etxebizitza elkartu daitezkeen bat osatzeko.

Udal arkitektoaren txostena aztertu ondoren.

Ikusirik Ibarra udalbatzaren erabakia dela 6 etxebizitza egitea eraikin horren goi solairuetan, beraietatik 4 itundutakoak eta 2 libre.

2015eko otsailaren 27an buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Antzibar S.A.U enpresaren kontsultari ezezkoa esaten zaio ondorengo arrazoiengatik.

Udalaren helburua Ibarra etxebizitza kopurua handitzea da, bereziki azalera txikia duten etxebizitzena, dagoeneko Ibarra momentu honetan etxebizitza eskaintza oso txikia delako.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Antzibar S.A.U enpresari

7.5 EUSKALERRIA 18-2KO BEHE OINEAN DAGOEN LOKALAREN ETXEBIZITZA ERABILERA BAIMENTZEKO ESKAERA.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Antzibar SAU enpresak, bere jabetzako lokal batean etxebizitza erabilera baimentzeko eskaria aurkeztu du.

2014ko abenduaren 29an indarrean jarri zen “Erabilera berriak baimentzeko ordenantza egoitza eremuetan dauden behe oinetan” eta 13. Artikuluan jasotako agiriak aurkeztu dira.

Etxebizitza erabilera baimentzea eskatzen den lokala, Euskal Herria 18-1 behea, Ordenantzaren A taulan ordenantza aplikagarria den kokalekuen zerrendan dago.

Ikusirik udal arkitektoaren ALDEKO TXOSTENA.

2015eko otsailaren 27an buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENEGOA: Euskal Herria 18-1 behean dagoen lokalean aplikagarria den erabileraren ordenantzen artean etxebizitza erabilera onartzea 2014ko abenduaren 29an indarrean jarri zen “egoitza eremuetan dauden behe oinetan erabilera berriak baimentzeko” ordenantzan jasotako baldintzak betetzen dituelako.

Ondorioz lokal horretako erabilera ordenantzak honako hauek izango dira:

Kokapena: M-1 gune mistoa./ Euskal Herria kalea 18-1 BEHEA.

Erabilerak: Etxebizitza, denda, taberna, jatetxe, dibertimentuzkoak eta gizartekoak.

BIGARRENA: Etxebizitza erabilera baimentzeko 12. Artikuluan jasotzen diren betebeharren balio ekonomikoa honako hau da:

a) Udalari lagatzea sistema orokorren sarean txertatzekoak diren eremu librerako lurak.
Udalari ordainduko zaio lur horien balio ekonomikoa dagokion kalte-ordaina. 2570.20€

b) Udalari lagatzea tokiko sistemen dotazio sarean txertatzekoak diren lurak, behar bezala hiritartuak. edota Udalari ordainduko zaio lur horien balio ekonomikoa dagokion kalte-ordaina. 428.26€

c) Udalari ordaintzea eraikigarritasunaren balio ekonomikoa, hirigintza esku-hartzeak sorturiko gainbalioetan komunitatearen hartzeari dagokionean. 856.53€

Etxebizitza-erabilera ezartzeko eskubidea hirigintza kargak ordaindu ondoren eskuratuko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Karga horiek gehienez bi hilabeteko epean ordaindu beharko dira Udalak erabakia jakinarazten duen egunetik hasita, eta lokala egokitzeko obra baimenaren eskaera aurkeztu aurretik.

Epe hori igaro eta hirigintza-kargak eskatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ordaindu ez badira, prozedura berriro hasiko da; hau da, beste eskaera bat aurkeztu beharko da.

Aurreko guztia hirugarrenen eskubideei eta, hala badagokio, jardueraren ondorioz jabetza horizontalaren tituluan egin litezkeen aldaketei kalterik egin gabe gauzatuko da.

Hirigintza-kargak ordaindu ondoren etxebizitza-erabileraren baimenaren titularrak uko egiten badio erabilera hori gauzatzeari, Udalak kargen zenbatekoa itzuliko dio, baldin eta obra-baimena eskatzeko ezarrita dagoen epearen barruan eskubide horri formalki uko egiten badio eta dirua itzultzeko eskaera aurkezten badu.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Antzibar S.A.U ri

7.6 EUSKALERRIA 56EAN IGOGAILUA JARTZEKO LIZENTZIA

7.7

M^a Paz Zubelzu Tapia Euskal Herria 56 z.ko komunitatearen izenean obretako lizentzia eskatu zuen igogailua jartzeko.

Eskaerarekin batera exekuzio proiektua aurkeztu zuen, Celia Lana Ranz, M^a Jose Moreno Juan eta Miren Muñagorri Múgika arkitektoek sinatuta eta 2014ko urriaren 2ko arkitektoen elkargo ofizialak bisatua.

Proiektuak aurreikusten zuen eskailera kentzea eta igogailua jartzea fatxadaren kanpoaldean herri bidea partzialki okupatuz eta estutuz. Udalak segurtasun arrazoiengatik proiektuan aldaketak egitea eskatu zuen, izan ere, igogailuaren irteera zuzenean ibilgailuekin oztopotatzen zen.

Jabekideak proposamen berri bat kontsultatu ondoren, 362/2014 Alkate Dekretuan aldeko erantzuna jaso zuten eta bertan lizentzia eman ahal izateko gauzatze proiektuaren gehigarrian jaso beharreko baldintzak zehaztu ziren.

Orain, 2015eko otsailaren 4ean 362/2014 Alkate Dekretuari erantzunez zehaztutako agiriak aurkeztu dituzte. Bide batez udalari proiektuan zehaztutako kabina baino txikiagoa jartzeko eskaria luzatzen diote, 1 x 1,25 azalera duen kabina hain zuzen ere, bereziki 3 etxebizitzetara bakarrik zerbitzu emango dielako eta horrela murrizketa ekonomikoa handia delako.

Udal arkitektoaren aldeko txostena ikusirik,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2015eko otsailaren 27an buruturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Obretako udal lizentzia ematea igogailua jartzeko Euskal Herria 56ean .

Hauek dira baldintza zehatzak:

Sortzen den bolumen berria etxebizitzetara sartu ahal izateko ez da konputagarria izango lursail edo eremu kaltetuan baimendutako eraikuntza aprobetxamendua zehazteko.

Eraikina ordeztuko balitz edo berrikuntza integrala egin bertan, eraikin berriak, proiektu honen aurretik indarrean dauden hirigintza arloko aurreikuspen teknikoak bete beharko lituzke.

BIGARRENA: Kabinaren tamainuari buruzko azken kontsultaren aldekoa. Erabilgarritasun erizpide salbuespena onartzen da arrazoi ekonomikoengatik eta igogailuen kabinen sakonera 1,20 m-raino murriztu ahal izango da eta zabalera berriz, 0,90 m-raino.

HIRUGARRENA: Ekainaren 26ko 112/2012 dekretuak, autonomia mailako eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa arautzen duenak, 5 art.an ezarritakoari jarraiki fidantza bat ezarriko da hondakin horien kudeaketa egokia bermatu ahal izateko. Fidantza 361,85€ izango da, hau da eraikuntza eta eraispén hondakinen kudeaketa kostuaren, hau da 309,54€-en gaineko % 120.

LAUGARRENA. Tasak eta EIOZ zergak aplikatzeko obrak gauzatzeko aurrekontua 46.528,12€ izango da.

Bidalitako ofizioan daude jasota obra mota hauentzako baldintza orokorrak.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri eman Euskal Herria 56 komunitateari.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko ordubiak direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.